

FEMINISMOA, DEMOKRAZIA OSOAREN BERMEA



Olatuz olatu gure bizitzak aldatu dituen Covid19ak sortutako krisi anizkoitzak markatu du aurtengo Martxoaren 8a ere. Kalean aurkitu gara. Aurtun besarkada labur batzuk ere batu dira, azken urteetan pandemiak, lehenengo kaleak eta eten-gabe besarkadak lapurtu ondoren.

Pandemiak bizi dugun sistemaren josturak utzi ditu argitan eta emakumeontzako sarri askotan hain bortitza den sistema horri feminismitik egin zaizkion ekarpenen balioa esponentzialki hazi da. Bizitza erdigunean jartzea aldarrikatu du luzez feminismoak, eta horixe ere ikasi dugu: prezio oso altuan bada ere, ikasi dugu bizitzarik gabe ez dagoela ezer.

Zaintzen krisia erdigunean jarri du pandemiak. Eta zaintzaren garrantzia azpimarratzeaz gain, orain tokatzen zaigu zehaztea zaintzak nolakoa izan behar duen. Zaintzen krisia, desberdintasun estrukturalak, biolentzia matxista... inoiz baino age-riago geratu dira eta horien sorburuan emakumeok alor guztietan bizi dugun desberdintasuna dagoela ere bai. Feminismoak berdintasuna bilatzen du, beraz demokrazian sakontzea, jendarte guztiarentzako benetako proposamen integratzailea izan nahi du.

Lagun kazetari bati sarritan entzun diot, Euskal Herrian biolentzia matxista jasaten dutenak emakumeak izan beharrean arotzak balira egoera bestelakoa zatekeela. Irainduak, bortxatuak, lan berbera egiteagatik gutxiago kobratzen dutenak, zaintza euren bizkar dutenak, hildakoak arotzak balira, tankera guztietako azterketa, neurri politiko eta sozialak hartuak leudeke, dio berak.

Aspaldiko pandemia da emakumeek pairatzen ditugun eraso fisiko eta sinbolikoena. Etxe barruan, lanean, kalean, haurtzaroan, gaztaroan, zaharrak garenean... Rebecca Solnit (Bridgesport, Connecticut, AEB, 1961) idazleak 'Men Explain things to me' saiakeran hausnarketa egiten du esanaz "gizonek sarri askotan irabazi ez duten autoritate bat erakusten dutela eta andreak askotan errealtate hori kuestionatu gabe onartzeko hezi gaituztela".

Eta hausnarketa hori modu biribilean osatu du Jule Goikoetxea (Donostia, Euskal Herria, 1981) irakasle feministak:

"Hazten gaituzte biolentzia batzuk, gutxiespen batzuk, beste batzuk baino gehiago sentitu ditza-gun. Intentzioarekin ala ez, gauza da diskurtso patriarkala, sentimendu patriarkala gailentzen dela".

Ez dira nolana hiko hausnarketak. Izan ere, oro har, muturreko eskuinetik edo autoritarismitik datozen eta arreta osoa merezi duten diskurtso eta mugimenduak gerorako utzita, gure inguruan biolentzia hauek –bai fisikoeak, bai sinbolikoeak– hase-reea, ardura, mina, ezinegona sortzen ez dutenik ezin da esan. Kalera irten eta pankarta bati heltzeko adorea eta konbentzimendua ere sortzen dute. Baina praktikak, egunerokoak, forma guztiz demokratikoz jantzia dagoen jardunak berdintasunaren hanka erdigunean ez dagoelarik asko ahultzen du hitzetatik, diskurtsotik, benetako ekintzetara dagoen bidea.

Errealtatea, benetan sentitutako haserreak eta minak inguratuta bada ere, ez da aldatuko estatu-erregulazioetatik, komunikabideetatik, erakundeetatik, legeetatik etengabe erreproduzitzen eta errepikatzen den desberdintasuna gainditzen ez den bitartean.

Ultraeskuinetik eta autoritarismitik datozen ideologiei dagokienez, Europa osoan olio- bezala zabaltzen ari dira azken urteotan, eta Euskal Herrian momentuz gutxiengo baten babesa izan arren –edo hala pertzibitu arren– oso arriskutsua izango litzateke suposatzen duten benetako arriskua gutxieste edo ez ikusiarena egitea. Misoginia, xenofobia, homofobia dituzte ardatz eta zabaldu egiten dituzte. Inolako pudorerik gabe, erabat lotsa-gabe, urte luzetan zehar gogor borrokatutako eta nekez konkistatutako berdintasunaren aldeko esku-bideen kontra bortizki erasotzea erabaki du ultraeskuinak, eta horretan dihardu etengabe.

Angela Davis (Birmingham, Alabama, AEB, 1944) datorrit burura, azpimarratzen baitu "Feminismoa ez dela genero zapalkuntza gainditzeko estrategia soilik, faxismoa, arrazismoa, eta materialismoa gainditzeko estrategia ere bada". Abortuaren aurkako kontzentrazioak, berdintasunaren aurkakoak, feminismoaren aurkako diskurtsoak...

MADDALEN IRIARTE



EH BILDUREN BOZERAMAILEA EUSKO LEGE BILTZARREAN

Mugimendu feministak egindako lanaren ondorioz eskuratutako lorpenak arriskuan daude olatu autoritario gero eta zabalgo honen ondorioz.

Ez hori bakarrik. Sarri askotan marko ideologikoa aldatzen saiatzen da, muturtzera jotzen du, arrakalaten saiatzen da –batzuetan lortu ere bai— eta feminismoa jomugan, zatiketa sortzera jotzen du, feminista onak eta txarrak, malguak eta ez hain malguak eta antzeko kategoria perbertsoak ezarri nahi araziz.

Feminismotik eta feminismoarekin erantzun ezean, ideologia horri aurre egin ezean, arlo guztietatik harresi bat eraiki ezean, hase-rearen diskurtsoetik harago jendarte antidemokratikoagoa, zapalduagoa, eskubidez murriztuagoa ikuskatu genezake erraz eta gertu. Elkarrekin aritu behar dugu, elkarrekin pentsatuz, ezarri nahi dizkiguten zatiketak gaindituz.

Behin baino gehiagotan kontatu dut, jaio nintzenez, duela 59 urte, amak ez zizkidala belarritakoak jarri, ez zidan zulorik egin. Ekinza feminista bat zen beretzat halakorik ulertzen ez zuen jendartean. Ez ditut geroztik jarri. Anekdotak hain kontatzen dut iruditzen zaidalako egiteko moduak, ilusioak, feminismoa bera, aldatu eta dibertsifikatu egin dela.

Oso ondo adierazten du Mari Luz Esteban (Pedrosa de Valdeporres, Burgos, 1959) irakasle, antropologo eta mediku feministak. Bere esanetan, berdintasunaren auziaren aurrean “gazteek pentsatzen omen dute aurreko belaunaldien kontua dela, beraiek ez dutela horrelako problemarik. Horrek alternatibak eta diagnostikoa zaildu egiten ditu. Feminismoa asko dibertsifikatu da: han eta hemen ditugu profesionalak. Instituzioetan profesionalak ari dira lanean, unibertsitateetan ikasketak egin ahal dira... Dibertsifikatzeak feminismoa zabaltzea ekarri du, eta ilusio bat sortu du, espejismo bat alegia, datu objektiboek ez dute eta berdintasunik badela erakusten”.

Bidea malkartsua da. Urtetan erdietsitako lorpenek indarra eman behar digute bidea urratzen jarraitzeko baina ez gaituzte itsutu behar, esku artean dugun erronkaren tamaina minimizatuz.

“Nazio feminista lortu arte” aldarrikatzen dugu EH Bildutik. Ezagutzen dugu egoera, ezagutzen ditugu biolentziak eta badakigu errotikako aldaketa eskatzen dutela. Nazio feminista eraikitzeko bidea egitea obligazioa da. Feminismoak berdintasuna bilatzen du. Eta berdintasun hori estatuaren ahalmenaren bidez lor daiteke. Horregatik dute garrantzia estatu egiturek. Horregatik aldarrikatzen dugu nazioa eta erabaki ahalmena. Erremintak behar ditugu, boterea, herri honen eraikuntza. Nazio izateak, Estatu izateak ez du bermatuko feminismotik, berdintasunetik eraikitako jendartea. Hau ez da magia! Baina gaur egun horretarako baliabide gehien ematen dizkigun egitura estatua da, eta horregatik aldarrikatzen dugu geurea, bai eta eraikuntza feminista horretan demokraziaren esanahi patriarkalak gaindituz aritu beharra ere.

Misio garrantzitsu bat daukagu. Guk sozializatu behar dugu zer den demokrazia, bestela esan egiten digute zer den eta argi dugu gaur gaurkoz kontatzen diguten hori ez dela baliagarria, ez datorrelako bat demokrazia-berdintasuna binomioarekin. Autoritatea lortu behar dugu, kontzeptuen birdefinizioan, subjektu aktibo izan behar dugu, eraikuntza hori egiteko.

Politika publiko feminista egiten duena da demokrazia feminista, lege feministak egiten dituen, feminismoa erdigunean jartzen duena arlo guztietarako. Boterea behar dugu baliabideak edukitzeko, gure burua gobernatzea ezinbestekoa zaigu egoera iraultzeko, beste ehunka urte pasa ez daitezten lortzen dugun bitartean. Demokrazian sakontzeko bide bakarra despatriarkalizazioan sakontzea da.

Bi irakurketa proposaten dizkizuet: ‘EAEko Demokrazia Patriarkala’ ikerketa (Jule Goikoetxea, Nora Miralles, Estitxu Garai, Lore Etxeberria, Zuriñe Rodríguez), Emakundek emandako beka bati esker 2019an burututakoa, eta ‘Euskal Demokrazia Patriarkala’ (Elkar 2020. Jule Goikoetxea, Lore Lujanbio, Estitxu Garai, Zuriñe Rodríguez). Bi lanen artean Euskal Herriko patriarkatuaren ezaugarri estrukturalak eta honek emakume eta gizonen boteretzean dituen ondorioak ulertzeko hainbat helduleku aurkituko ditugu. Finean zein garrantzitsua den biolentzia sinbolikoak kontutan hartzea patriarkatuaren birsortzea ulertzeko, jabetzeko patriarkatua biolentzia formalaren oinarria dela, ahuldu, prekarizatu, gutxietsi, zapaldu egiten gaituela.

Bitartean, lortzeko, eta lortu arte, bilakatu dezagun egun bakoitza Martxoaren 8. Feminismoa Herria eraikitzeko delako, herri justua, berdintasunean oinarritua, herri hobea.